


Behera egin du tabakoaren kontsumoak EAEko gazteen artean

2004tik 2010era zertxobait behera egin du erre ohi duten gazteen ehunekoak EAEn: %35,4tik %32,8ra.

[OMEk](#) (Osasunaren Mundu Erakundea) Tabakorik gabeko Munduko Eguna ospatzen du urtero, maiatzaren 31ean. Egun horren helburua da tabakoaren kontsumoak osasunari dakarzkion arriskuez jabeaztea da, bai eta kontsumo hori murrizteko politika eraginkorrak sustatzea ere. Era berean, tabakoaren kontrolarekin loturiko mezu zehatzak azpimarratzea eta Tabakoa Kontrolatzeko [OMEren Hitzarmen Markoa](#) betetzen dela zaintzea ere badu xede. Tabakoaren kontsumoa bigarren heriotza-kausa nagusia da munduan, hipertentsioaren atzetik; hamar heldutik baten heriotzaren atzean dago.

Ospakizun hori dela-eta, EAEn bizi diren 15 eta 29 urte bitartekoen tabako-kontsumoari buruzko zenbait datu eman nahi ditugu [Gazteen Euskal Behatokian](#). Datuok [Euskadi eta Drogak ikerlan](#)-serietik atera dira, Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailaren Droga Gaietako Zuzendaritzak argitaratua.

Ikerlan horien arabera, zertxobait jaitsi da ohiko erretzaileen ehunekoa EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean: %35,4 ziren 2004an eta %32,8 2010ean. Antzeko jaitsiera egon da biztanleria osoan, epe berean, %30,3 izatetik %28,9 izatera igaro baita ehunekoa.



15 eta 29 urte bitartekoen tabako-kontsumitzaileen ehunekoa antzekoa da gizonengan (%33) nahiz emakumeengan (%32,7). Bi sexuen parekotasun hori 15 eta 34 urte bitartekoengan gertatzen da, nagusiki.

Gazteak tabakoa kontsumitzen hasten diren adina 16,7 urte da, batez beste. 15 eta 19 urte bitartekoengan hasiera hori goiztiarragoa da: 14,9 urte (14,8 mutilen kasuan; 15,1 urte nesken kasuan).